

Euskal Autonomia Erkidegoko Gutxitasun Fisikoa duten Pertsonen Konfederazio Koordinatzailea

www.
jarri
nire
lekuan
.eu

ELKARTEAN "25 URTE

AUKEREN PAREKATzea ETA DISKRIMINAZIO EZA



Gozoratu...

ARABA

Beato Tomás de Zumárraga, 96-98 behea
Tel. eta Faxa: 945 225 516
01009 VITORIA-GASTEIZ
e-mail: eginez@euskalnet.net
www.eginez.org

GIPUZKOA

Ondarreta pasealeku 5.ean
Tel.: 943 316 770 • Faxa: 943 316 379
20018 DONOSTIA
e-mail: elkartu@elkartu.org
www.elkartu.org

BIZKAIA

Blas Otero, 63 behea
Tel.: 94 405 36 66 • Faxa: 94 405 36 99
48014 BILBO
e-mail: fekoor@fekoor.com
www.fekoor.com

KONFEDERAZIOKO KIDE DIREN ELKARTEAK

GIPUZKOA

- **AGAEB**
Bizkarrezur bifidodunen Gipuzkoako elkarte.
- **AGAER**
Gaixotasun erreumatikoek erasandako Gipuzkoako elkarte.
- **AGE**
Gipuzkoako epilepsiaren elkarte.
- **ANAIIDIA**
Gutxitasuna duten pertsonekiko kristau senidetasa.
- **ASPARGUI**
Gipuzkoako parkinson elkarte.
- **BIZI-BIDE**
Fibromialgia eta astenia kronikoaren Gipuzkoako elkarte.
- **Debabarreneko Gutxitu Fisikoak.**
- **LEZDI**
Lezoko gutxituen elkarte.

BIZKAIA

- **A.C.C.U.**
Crohn-en eritasuna eta ulteradun kolitisa duten gaixoen elkarte.
- **A.D.E.L.E.S.**
Lupus eritematoso sistemikoa duten gaixoen elkarte.
- **ADEMBI**
Bizkaiko esklerosi anizkoitzaren elkarte.
- **ALCER**
Giltxurruneke gaixotasunen aurkako elkarte.
- **ASEBI**
Asociación bizkaia elkarte espiná bífida e hidrocefalia.
- **Gutxitasun fisikoa duten pertsonekiko gurasoen bizkaiko elkarte.**
- **Lea-Artibaiko ahalurri fisikoen elkarte.**
- **AHEVA**
Eusko hemofiliaren elkarte.
- **ARGIA**
Ostomizatuen eta inkontinenteen euskal elkarte.
- **ASPANOVAS**
Bizkaiko haur minbizidunen gurasoen elkarte.
- **AUXILIA**
- **A.V.A.H.**
Bizkaiko ataxia hereditarioen elkarte.
- **B.E.N.E.**
Bizkaiko eritasun neuromuskularren elkarte.
- **BIDARI**
Gutxitasun fisikoa duten pertsonekiko ermuko elkarte.
- **BIZKEL**
Bizkaiko bizkarmuinaren kaltetuak.

- **CODISFIBA**
Barakaldoko gutxitasun fisikoa duten pertsonekiko elkarte.
- **FRATER**
Elbarrituen eta gaixoen kristau elkarte.
- **L.E.V.A.R.**
Artritis reumatoidea duten pertsonekiko elkarte.
- **EFELA**
Gutxitasun fisikoa duten pertsonekiko arratiko elkarte.

ARABA

- **EGINAREN EGINEZ**
Arabako Gutxitasun Fisikoa duten Pertsonekiko Elkarte.

Eusko Jaurlaritzako
Justizia, Lan eta Gizarte
Segurantzaren Sailak
diruz, lagundutako
argitalpena.

Elkarte horiekin
harremanetan jarri nahi
baduzu, jo ezazu zure
probintziako
koordinadorara

a u r k i b i d e a

O r o k o r r a

| | |
|--|---|
| 1- "25 URTE" | 4 |
| 2- URTEROKO IV. JARDUNALDIA EDEKA, ELBARRITUEN ORDEZKARIEN EUSKAL KOORDINATZAILEA..... | 7 |
| 3- APARKALEKU TXARTEL BERRIA | 8 |

A r a b a

| | |
|---|----|
| 1- ARABAKO DIARIO DE NOTICIAS EGUNKARIA EGINAREN EGINEZ ELKARTEAREKIN IBILI DA GASTEIZ ERDIALDEAN | 9 |
| 2- ETXEBIZITZA | 11 |
| 3- ETXEKO LAGUNTZA | 11 |
| 4- ZIRKULAZIOAREN GAINEKO ZERGA ALDATU DUTE ARABAN | 12 |
| 5- ESPAÑA DIRECTO SAIOA GASTEIZEN | 14 |

B i z k a i a

| | |
|--|----|
| 1- ZEU PARTE | 15 |
| 2- FEKOOREKO BERDINTASUNAREN ALDEKO EMAKUME BATZORDEAK JARDUNALDI BAT ANTOLATU DU, AHALMEN-URRITASUNA DUTEN EMAKUMEAK GIZARTEAN DESABANTAILA HANDIAGOAN EGOTEA ERAGITEN DUTEN EGOERAK AZTERTZEKO | 17 |
| 3- ARBOLARTEK KUDEAKETA KALITATEAREN ZILARREZKO Q-A LORTU DU | 19 |
| 4- ETXEBIZITZAK IRISGARRIAGOAK IZATEARREN FEKOOREK EGINDAKO ERREKLAMAZIOAK DIPUTATUEN KONGRESURA IRITSI DIRA | 20 |
| 5- FEKOOREK HELEGITE BERRIA AURKEZTU DU, BARAKALDOKO LA INMACULADA AUZOKO ESKAILERA MEKANIKOAK ALDATZEKO ESKATUZ | 21 |
| 6- ESKI ALPETAR EGOKITUKO VII. IKASTAROAK | 23 |

G i p u z k o a

| | |
|--|----|
| 1- GIPUZKOAKO GIZARTE-ZERBITZUEN SISTEMA BERRIA | 25 |
| 2- «TEKNOLOGIA BERRIAK, AHALMEN-URRITASUNAK DITUZTEN EMAKUMEEN ENPLEGAGARRITASUNA HOBETZEKO BIDEAK»..... | 26 |
| 3- ALDAKETAKTRAKZIO MEKANIKOKO IBILGAILUEN GAINEKO ZERGAN | 28 |

25 URTE

25 urte inguruko ibilbidea egin ondoren, **ELKARTEAN**ek ahalmen-urritasun fisikoa eta organikoa duten pertsonen kolektiboaren alde lan egiten jarraitzen du. **ELKARTEAN** 80ko hamarkadan eratu zen, konfederazioa osatzen duten erakundeen eta lurralde historikoen arteko harreman-esparrua izateko. Hasieran, Nafarroak ere parte hartu zuen. Sortu zenean garai historikoa bizi genuen, minusbalotasun fisikoa edo/eta organikoa (aniztasun funtzionala) zuten pertsonen kolektiboak, herritarrak ziren aldetik, haien eskubideak aitortzea aldarrikatzen baitzuen.

Kolektibo horren lanari eta ekarpenari esker, **ELKARTEAN**en egitekoa sendotuz doa, bai eta gizartean duen presentzia eta beste erakundeekin gauzatzen duen solaskide-lana ere.

Gaur egun Gizarte Ongizaterako Euskal Kontseiluko eta Gizarteratzeko Euskal Kontseiluko kide da eta, gainera, Gizarte Elkarrizketarako Mahaian eta Irisgarritasun Kontseiluan parte hartzen du.

Elkarte-mugimenduaren parte hartzeari dagokionez, EDEKAN dago, hau da, Elbarrituen Ordezkarien Euskal Kontseiluan.

Egunero lan eginez, **ELKARTEAN**ek honako helburu hauek lortu nahi ditu ordezkatzen duen kolektiboaren alde:

- Lan egitea ahalmen-urritasun fisikoa eta organikoa duten pertsonen eta haien familien eskubideen eta bete-beharren aintzatespena eta errespetua lortzeko.
- Ekintza sozial bakarra egitea hiru lurraldeen artean, indar bisuala eta aldarrikatzailea sendotzeko Euskal Administrazioa Publikoaren, gizarte-

eragileen eta, oro har, biztanleen aurrean.

- Informazioa ematea ahalmen-urritasun fisikoa eta organikoa duten pertsonen Euskadin bizi duten egoerari buruz, eta errealitate hori herritarrei ikusaraztea gogoan izan dezaten.
- Kolektiboa eta **ELKARTEAN**eko kide diren erakundeak ordezkatzea Euskal Administrazio Publikoaren lurralde arteko esparru eta organoetan, kolektiboa osatzen duten pertsonen eta haien erakundeen interes komunak defendatzeko.
- Parte-hartzea aldarrikatzea, aukera berdinak izatearen alde egiten duen gizarte inklusibo batean.
- Arreta eskatzea eta salatzea gaur egun, oraindik, kolektibo honek bizi dituen gizarte-bazterketako egoerak; eta, bereziki, ahulenei laguntzea.
- Irisgarritasun unibertsala duten herririk eta hiriak.

Gaur egun, herri-administrazioek gartzten dituzten politika guztiek aitortzen eta sustatzen dituzte ahalmen-urritasun fisikoa eta organikoa duten pertsonen parte-hartze aktiboa, bizimodu autonomoa eta independentea, eta eskubideak. Hala ere, praktikari eta egunerokotasunari begira, bide luzea dugu; izan ere, kolektibo honen eskubideak gizarte- eta kultura-esparru guztietan zeharka aplikatzea falta da oraindik, irisgarritasun osoa bermatzeko.

Une hauetan, urte askotan lan egin ondoren, **ELKARTEAN**ek hainbat ekimen prestatu ditu datozen lau urteetarako (2011-2014), bai eta estrategia-plan batean bildu ere.

Luzaroan lanean aritu ondoren, batez ere, ahalmen-urritasun fisikoa eta organikoa duten pertsonen eta oro har euskal gizartearen alde, oraingo honetan **ELKARTEAN**ek lan-plangintza bat prestatu du eta hurrengo hiru urtean egingo dituen ekintza zehatzak finkatu ditu (2011-2014).

Hiru urterako lan-programa horrek konfederazioaren politika aldarrikatzen du eta gizarteak politika hori gogoan izan dezan sustatu nahi du, ahalmen-urritasun fisikoa eta organikoa duten pertsonen kolektiboan zein gizartean oro har. Horretarako, besteak beste, honako alor hauetan garatu behar da lan-programa hori:



AUTONOMIA PERTSONALA SUSTATZEARI ETA MENDE TASUN-EGOERAN DAUDEN PERTSONAK ZAIN TZEARI BURUZKO LEGEA APLIKATZEA

Autonomia Pertsonala Sustatzeari eta Mendetasun-Egoeran dauden Pertsonak Zaintzeari buruzko Legea berdintasunez aplikatu behar da hiru lurraldeetan, bizilekua edozein izanda ere guztiok maila berean egoteko.

Ildo horretan, laguntzaile pertsonalerako zerbitzua lurralde orotan berdín garatzen dela aztertuko da. Hori guztia egingo da kolektiboak bizimodu independente eta autonomoa izateko helburua lortzeko.

ENPLEGUA

Gaur egun bizi dugun krisi ekonomikoak enplegua izateko aukera nabarmen galarazten die ahalmen-urritasun fisikoa duten pertsoneri.

Hainbat azterketek aditzera eman dute ahalmen-urritasunen bat duten pertsonen langabezia-tasak biztanleriaren batez besteko langabezia-tasa bikoiztu dezakeela; eta, gainera, ehuneko horren barnean emakumeak dira kaltetuenak, emakumeen langabezia-tasa gizonezkoena baino askoz handiagoa baita.

Ahalmen-urritasuna duten pertsonen prestakuntza-planetan parte har dezaten laguntzea funtsezkoa da lan-merkatuan sartzeko.

ELKARTEANek etorkizunerako hainbat ekintza aldarrikatzen ditu; horien artean, Euskal Autonomia Erkidegoan Minusbaliatuek Enplegu Arrunta izateko Plan berria prestatzea eta plan hori idazteko jarraipen sakona egitea aldarrikatzen du; hain zuzen ere, 2009. urtera arte zen aurreko enplegu-plana ordezkatzeko.

Halaber, ahalmen-urritasun fisikoa eta organikoa duten pertsonak gizarteratzeko politika aktiboak aldarrikatzen jarraituko dugu, pertsona horiek lan-merkatu arruntean sar daitezten.

OSASUNA

Ahalmen-urritasun fisikoa duten pertsonen premia zehatzak dituzte eta gaur egun, oraindik, osasun-eredu publikoan ez dute laguntzarik izaten. Laguntza hori emateko, lehenik eta behin honako hauek lortu behar dira: lehen mailako asistentzia kalitate



onekoa izatea; prebentziozko neurri zehatzak ezartzea: material ortoprotesikoaren katalogoa izatea, premia-zkoak diren laguntzeko produktuekin; eta pertsona bakoitzak benetako premien arabera duen osasun-gastua ez izatea ahalmen-urritasuna duten pertsonen familia-ekonomien kontura edo eraginik ez izatea.

HEZKUNTZA

Hezkuntza jasotzeko aukera osoa izatea da baliabiderik onena pertsonak lan-merkaturatzeko eta gizarteratzeko. Gaur egun, oraindik ere, ahalmen-urritasunen bat duten pertsonak benetako zailtasunak dituzte, eta, bereziki, ahalmen-urritasun fisikoa eta organikoa dutenek.

Hezkuntza jasotzeko aukera osoa errazteko, alde batetik, ikastresnak egokitu eta, bestetik, laguntza teknikoak ugaritu behar dira, horiek baitira, besteak beste, ahalmen-urritasunen bat duten pertsonak heziketan aurrera egitean aurkitzen dituzten oztopoak.

Etorkizunean egingo ditugun jardueren artean aurreikusi dugu pertsona orok hezkuntza eta prestakuntza jasotzeko aukera osoa aldarrikatzea, maila guztietan —hau da, haur-hezkuntzan, unibertsitate-hezkuntzan nahiz helduen hezkuntzan— ikasteko aukera osoa izan dezan.



IRISGARRITASUNA

20/97 Legea onartzea gertaera go-goangarria izan zen, irisgarritasuna legez arautzearen bidez horren alde egin

baitzen; baina hobekuntza nabarmena izan zen arren ahalmen-urritasun fisikoa eta organikoa duten pertsonen kolektiboarentzat eta biztanleriarentzat oro har, gaur egun —hain zuzen ere, hamahiru urte ondoren—, ez da oraindik irisgarritasun osoa ehuneko ehunean bermatzen eraikinetan eta garraio publikoetan.

EMAKUMEAK

Emakume minusbaliatuek diskriminazio bikoitza jasaten dute: minusbaliatuak izateagatik eta emakume izateagatik. **ELKARTEAN**ek horren aurka lan egiten du.

Konfederazioa osatzen duten elkar-teak harremanetan daude lurralde historikoetako emakumeen plataformekin. **ELKARTEAN** harremanetan dago **EMAKUNDE**ekin. Gainera, berdintasun-planei hainbat ekarpen egin dizkie.

AUKERA-BERDINTASUNA

Gaur egungo gizartea askotarikoa eta plurala izanik, ahalmen-urritasun fisikoak ez luke oztopo bat izan behar edozein gizarte-esparrutan sartzeko.

Hala ere, **ELKARTEAN**ek jasotzen dituen kasuek egunetik egunera agerian uzten dute errealitatea bestelakoa dela eta utopia hutsa izaten jarraitzen duela.

ELKARTEANek guztiontzako irisgarria den gizartea aldarrikatzen jarraitu behar du, guztiok aukera berdinak izan ditzagun gizarteko alor guztietan (besteak beste, prestakuntzari, hezkuntzari, enpleguari, osasunari, etxebizitzari, garraioari, aisiari eta denbora libreari dagokionez).

Federazioak osatzen dituzten elkar-teetako eta **ELKARTEN**eko kideok egunero lanean jarraituko dugu, kolektiboaren aldarrikapenen berri emateko eta erakunde publikoei eta oro har biztanleei helarazteko.

URTEROKO IV. JARDUNALDIA

EDEKA, ELBARRITUEN ORDEZKARIEN EUSKAL KOORDINATZAILEA

Edekaren Urteroko IV. Jardunaldia **IV Jornada anual Edeka**

Urritasuna duten pertsonen eskubideei buruzko nazioarteko batzarra Convención internacional sobre los derechos de las personas con discapacidad

2010eko Azaroaren 18an
18 de Noviembre de 2010
KURSAAL - DONOSTIA

Inskripzioak / Inscripciones:
www.edeka.es

EDEKA
El Barrio de San Sebastián

Edekaren urteroko jardunaldia, aurrean, Donostian izan zen, eta ardatz bakar eta nagusia **ahalmen-urritasuna duten pertsonen eskubideei buruzko nazioarteko hitzarmena** izan zen.

Idoia Mendiak, Justizia eta Herri Administrazioioko sailburuak; Markel Olanok, Gipuzkoako ahalmen nagusiak; eta Susana García Chuecak, Donostiako Udaleko Ogasuneko zinegotzi-ordezkariek, eman zioten hasiera jardunaldiari.

Stefan Tropel-ek, ahalmen-urritasuna duten pertsonen eskubideei buruzko nazioarteko hitzarmenean dagoen ahalmen-urritasunaren nazioarteko aliantzako zuzendari betearazleak, egin zuen jardunaldiaren aurkezpen orokorra. Tropel jaunak nabarmendu zuen, besteak beste, hitzarmenaren helburua ahalmen urriko pertsona guztien eskubide orokorrean arduratzea dela, baita guztion parte-hartzea lortzea ere, hitzarmenaren eta ahalmen urriko pertsonen eskubideen alde egiteko orduan gizarte zibilaren zeregina aztertze eta Euskal Autonomia

Erkidegoko gizarteratze-politikak zein politika horien erronkak aztertze.

Nabarmentzekoa da ahalmen-urritasuna duten pertsonen eskubideei buruzko nazioarteko hitzarmena ahalmen-urritasuna duten pertsonen eskubide orokor guztiez arduratzen dela, haien erabateko parte-hartzea lortze aldera; eskubide horiek lortzeko urratsak egiten dituzten gobernu, kontseilaritza eta sail guztien ekintzeta zuzenduta dagoen zeharkakotasun-mezua ere botatzen du.

Erakunde publikoek ahalmen-urritasunaren zeharkakotasuna eskatu beharko lukete edozein proiektu eta programatan proposatzen dituzten ekintzetan.

Hitzarmena aurrerapauso handia da, baina ez da helmuga, hasiera baizik; eskubideek ez dute euren kabuz aurrera egiten, gizakion ekintzak behar dituzte.

Arratsaldean mahai-ingurua egin zuten; gai nagusia hitzarmenarekiko Euskadiren egoera izan zen. Deustuko Unibertsitateko Delfin Monterok hezkuntzan barne hartzeko Euskal Autonomia Erkidegoko politikez hitz egin zuen; Mariano Cortése, Lanbideko enplegu eta prestakuntzako zuzendariak, lanaz eta urritasunaz hitz egin zuen, zehazki gero eta zorrotzagoa den merkatuaz; eta Rafael Mendia de Zerbikas kulturartekotasunaz aritu zen.

Jardunaldien bigarren zatian Fernando Fantovak, Gizarte Gaietako sailburuordeak, eta Maite Etxanizek, Gizarte Politika Saileko diputatuak, parte hartu zuten. Gobernuak lurralde- eta autonomia-eremuan hitzarmena ezartzeko duen erantzukizunaz hitz egin zuten.

Artikulu honekin nabarmendu nahi dugu, baita ere, Europar Batasunak ahalmen-urritasuna duten pertsonen eskubideei buruzko nazioarteko hitzarmena berretsi duela.

ARABAKO DIARIO DE NOTICIAS EGUNKARIA

EGINAREN EGINEZ ELKARTEAREKIN IBILI DA GASTEIZ ERDIALDEAN

GASTEIZ. Carlos Mtz. Ordunaren artikulua. Argazkiak: DNA.

“Gasteiztar askok oztopo-lasterketa neketsu eta zailari aurre egiten diote egunero kalera atera eta hainbat jarduera arrunt egiteko; adibidez, banketxe batean kontu bat zabaltzeko, erakunde publiko batean inprimaki bat uzteko edo posta bidez pakete bat bidaltzeko. 2011 betean, Irigarritasun Legeak erabat garatuta behar zuen honetan, mugikortasun murriztua duten pertsonen guztientzako hiria aldarrikatzen jarraitu behar dute, eguneroko hainbat eremutan aurkitzen dituzten oztopo gaindiezinik gabeko hiria. Eta paradoxarik handiena da, eremu horietako asko publikoak direla. ARABAKO DIARIO DE NOTICIAS egunkariak Silvia Apodakarekin, Eginaren eginez desgaitasun fisikoa duten pertsonen Arabako elkarteko presidentearekin, igaro du goiz bat hiriko alde zaharrea eta erdigunean pasieran, eta txango horretan egiaztatzen du arlo horretan aurrerapauso batzuk izan badira ere, aurrerapen horiek ez direla nahikoa, ezta gutxiago ere.

Kolektiboak horixe bera salatu zuen iragan abenduan, *Jar zaitetz nire lekuan* kanpainaren bidez, ingurune iritsiezinak ugaritu egin direla Gasteiz osoan. Hogeita hamarretik gora boluntariok gomet gorri deigarrien bidez adierazi zituzten puntu horiek. Ingurune irisgarrietan, berriz, horrelakoak ere bai baitira, gomet berdeak ezarri zituzten, nahiz eta guztiek ez %100ean bete pertsona desgaituen beharrianak. Guztira ia 6.000 gomet itsatsi zituzten Arabako hiriburuan. Baina, zer baldintza bete behar ditu

leku batek guztiz irisgarria izateko? Apodakak jakinarazi ditu batzuk: “Ahal dela, sarrerak zero kotan egon behar du eta ate arinak edo automatikoak izan behar ditu. Barruan, jendea arreta emateko mahaiek arrazoizko altueran egon behar dute, espazio zabalak behar dira mugitu ahal izateko eta aukerak jiratzeko; igogailurik bada, zabala izan behar du eta zoruak ez du labainkorra izan behar, makuluekin ibiltzen direnek irrist egin ez dezaten”. Eta abar, eta abar. Zenbait tokik, oso gutxi, zorrotz betetzen dituzte oinarrizko arauak, batez ere merkataritza-gune sortu berriek. Beste batzuk, berriz, zenbait neurri bete arren, erdibidean geratzen dira. Eta asko dira, barrura sartu gabe, sarreran bertan, hiru arau betetzera iristen ez direnak. Etxanobe Etxea da adibide garbia. Etxea Alde Zaharren goi-goiko aldean dago eta udalako zentro zibiko, euskara, emakume, gaztedi eta garapenerako lankidetzaz zerbitzuen egoitza da. Eskailera-maila altu bat, altuera dela eta iritsi ezin den atezain bat eta egurrezko ate astun bat aski dira mugikortasun murriztua duen edonori sarrera galarazteko.

Besterik gabe, Errementari kaletik hara iristeko, Silviak itzulinguru handi bat egin behar du Andra Maria Zuritik, Arkupeko ibilbidetik eta Frai Zacarias Martinez kaletik, Bakardade kantoian egiten ari diren berregokitze lanak direla medio. Aldapa mekanikoetatik goraino iristea ere arriskuko kirola da, zenbait zati oso-oso aldapatsuak baitira eta gurgil-aulkien zenbait modelok iraultzeko arriskua baitute. Egokitutako pasabideen arrastorik ere

ez dago, nahiz eta legeak horretara behartu. "Mugikortasun murriztuko pertsonak gara, eta, horren ondorioz, guretzat ez dira egokiak kilometro bateko luzera duten ibilbide alternatiboak", arrazoitu du Silviak.

Beste kasu batzuetan, bai, badira ego-kitutako pasabideak desgaitasuna duten pertsonentzat, baina horiek ez daude seinaleztatuta. Hori gertatzen da, esaterako, Postako bulegoan: egoitzak badu atzeko sarrera bat baino oso gutxi dakite horren berri. Kanpoko postontzietan eskutitz bat botatzea ezinaren hurrengoa da, lau eskailera-maila gainditu behar baitira. Silviak oinezko bati eskatu behar izan dio laguntza. "Erakundeek berek ez badute legea betetzen, nekez emango dugu aurrerapausorik", ondorioztatu du Eginaren Eginez elkarteko presidenteak.

Mugikortasun gaietan oraindik ere etxeko lanak egin ez dituzten sekto-reen artean, Silvia Apodakak aurrezki kutxak, bankuak eta notariotzak aipatu ditu, duda izpirik egin gabe. "Uste dut bakar batek ere ez dituela baldintzak betetzen", deitoratu du.



San Bizenterra iristeko eskailerak.



Luis de Ajuria sala.

Beste aldean, berriz, farmazia askok, elikadura-saltoki berri batzuek eta zenbait dendak, bai, betetzen dituzte oinarrizko baldintzak. New Yorker arropa-dendak, Alaba jeneralaren kalean, adibidez, gutxienezko baldintza guztiak betetzen ditu: aterik gabeko sarrera zabalak, zero kotan, eta barnean espazio zabalak eta garbiak aulkia erraz mugitu ahal izateko. "Ia gehienentzat erosotasuna dena, guretzat beharra da", ohartarazi du Silviak.

Kale nagusi horretan, nola ez, badira puntu gorriak ere. Luis de Ajuria sala eta 10. ataria dira bi adibide argi. Atari horretan, Estatuko eta Arabako Aldundiko zenbait erakundek dute egoitza. Bertan bada igogailu bat, baina aulki guztiak ez dira bertan sartzen eta tinbrerik ere ez dago igo nahi dutela abisatzeko. Zer esan, berriz, zaborren edukiontziei edo bilketa pneumatikorako ontzietan buruz, haiek irekitzea erronka gaitza dela besterik. Hiri iritsiezin bat zer den adierazteko adibide bakan batzuk dira horiek. Eta Gasteiz ez da salbuespena, hiri gehienak baitira iritsiezinak".



Postako bulegoa.



Zaborren edukiontzia.

ETXEBIZITZA

Zadure, S.A. enpresak, Gasteizen finkatutako etxebizitzaren sustatzaileak, Elkartera jo du jakinarazteko salmenta libreko 63 etxebizitza sustatzen ari dela Salburuako 12 Sektorean, eta horien artean **bi etxe egokitu** dituela desgaitasun fisikoren bat duten pertsonentzat; enpresaren arabera, etxebizitzek indarrean den legedia betetzen dute irisgarritasunaren arloan.

Ezaugarriak: bi etxebizitza, 89,35 m² erabilgarrikoa bakoitza, horrela banatuta: terraza, esekilekua, sukaldea, bi gela handi eta komun bat (dutxaontzi eta bainuontziarekin), eta, horrez gain, trastelekua eta garaje-plaza zabal bat. Uneotan eraikitzen ari dira etxebizitzak, eta aurreikuspenen arabera, datorren urteko maiatzean bukatuko dituzte.



Prezioak, etxebizitzak zer orientazio duen, 240.000 eta 252.000 euro, hurrenez hurren (+B.E.Z.).

Informazio gehiago:

ZADURE S.A.
Pº Salvador Aspiazu, 1 behea
Gasteiz. Tfnoa.: 945 220 450

ETXEKO LAGUNTZA

Hainbat gizarte erakundek behin baino gehiagotan salatu izan dutenez, azkeneko urteotan murrizten ari dira gizarte-laguntzak, baita oinarrizko lan-eskubideak ere.

Esaterako, Arabako Foru Aldundiak ez die diru gehiagorik ematen Araban Etxeko Laguntza Zerbitzua kudeatzen duten enpresei, eta, horrenbestez, enpresa horiek ezin izan dute langileen soldatarik igo, ez eta txandarik ezarri ere. Gainera, 2007az geroztik, Mendekotasun Legearen prestazioak indarrean sartu zirenetik, %20 inguru murriztu dira Diputazioak onartutako etxeko laguntza-zerbitzuak.

Hori dela eta, sektore horretan areagotu egin da lan-prekarietatea, eta guretzat ere, erabiltzaileontzat, ondorioak txarrak izan dira. 2010ean muturreko egoerarako baino ez

dituzte onartu zerbitzuak, eta itxaronzerrendak sortu dira. Mendekotasun-egoeran dauden pertsonen etxeko laguntza jasotzea, eskubidea baino gehiago, luxua da gure lurraldean.

Foru Aldundiak politika hauxe ezarri du azken aldia: familiei diru-laguntzak ematea mendekotasun-egoeran dauden beren senideen zaintzaz arduratu daitezzen. Askotan, familiek, emakume etorkinen esku uzten dute ardurari, eta baldintza are prekariagoetan ematen diete lana emakume horiei: kontraturik eta gizarte-segurantzarik gabe eta soldata oso txikiarekin. Etxeko laguntza-zerbitzuaren ordezkariak ematen dute, baina diru hori ez da aski bizitza autonomia egiteko aniztasun funtzionala duen pertsona batek behar ditzakeen langileei eta laguntzaileei soldata duin bat ordaintzeko.

ZIRKULAZIOAREN GAINEKO ZERGA ALDATU DUTE ARABAN

TRAKZIO MEKANIKOKO IBILGAILUEN
GAINEKO ZERGAREN UZTAILAREN
19KO 44/1989 FORU ARAUAREN 9.
ARTIKULUAREN TESTU BERRIARI BU-
RUZKO OHARRAK.-

I.- Abenduaren 20ko 15/2010 Foru Arauan (ALHAO, 147, 10/12/29koa, Gehigarria), aldatu egin da Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen Zergari buruzko uztailaren 19ko 44/1989 Foru Arauaren 2.1 artikulua. 2011ko urtarrilaren 1etik da indarrean moldatutako testua. Hauxe:

"e) Mugikortasun murriztua duten pertsonentzako ibilgailuak, abenduaren 23ko 2822/1998 Errege Dekretuak, Ibilgailuen Erregelamendu Orokorra onartzen duenak, II. eranskinaren A letran aipatuak, pertsona desgaituen izenean matrikulatuta daudenean.

Era berean, salbuesita daude 14 zaldi fiskaletik beherako ibilgailuak, baldin eta desgaituen izenean matrikulatuta egonik beraiek ez beste inork erabiltzeko badira. Salbuespen hau zirkunstantzia horiek betetzen diren artean aplikatuko da, pertsona desgaituek gidatutako ibilgailuak izan nahiz horiek garraiatzeko ibilgailuak izan.

Salbuesita daude, baita ere, guraso-ahal, tutoretza edo kuradore-tza dela-eta %65eko desgaitasun maila edo handiagoa duen pertsona bat beren ardurapean duten pertsonen jabetzako ibilgailuak.

Aurreko hiru paragrafoetan ezarritako salbuespenak ez zaizkie aplikatuko onuradun diren subjektu pasiboari ibilgailu bat baino gehiagorengatik.



Letra honetan xedatutakoaren ondorioetarako, hauexek dira ezinduak:

- a') %33ko edo hortik gorako eta %65etik beherako ezintasuna aitortuta izan eta mugikortasun murriztuko gabezia egoeran dauden pertsonak. Horrenbestez, ezindutzat hartuko dira abenduaren 23ko 1971/1999 Errege Dekretuaren (ezintasun maila onartu, aitortu eta kalifikatzeko prozedura ezartzen du) III. eranskinean zehaztutako baremoaren A, B edo C ataletan jaso diren egoeraren batean dauden pertsonak edo aipatutako baremo horretako D, E, F, G edo H ataletan jasotako egoeretan 7 puntu edo gehiago dituztenak.
- b') %65eko ezintasuna edo hori baino handiagoa duten pertsonak.

Aurreko a') eta b') letretan sartuta dauden pertsonen artean, 1971/1999 Errege Dekretuko III. eranskin gisa agertzen den baremoan A letrarekin mugitu ezintasuneko egoeran daudenei, ez zaie aplikatuko 14 zaldi fiskalen

muga, baldin eta ibilgailua gurpil-aulkiekin erabiltzeko egokituta badago.”

II.- Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen Zergari buruzko uztailaren 19ko 44/1989 FAren 2.1 artikuluaurreko testua dela eta, beltzez adierazitakoak dira aldaketak. Hauxe da aldaketa horien mamia:

a) *Guraso-ahal, tutoretza edo kuradoretza dela eta %65eko desgaitasun maila edo handiagoa duen pertsona bat beren ardurapean duten pertsonen jabetzako ibilgailuak ere salbuestea.* (Arauaren izapidetze parlamentarioan jarritako helegite baten ondorioz sartu zen aldaketa hori. Desgaitasunen bat izan eta beren kabuz ibilgailu bat gidatu ezin duen pertsona bat –hau da, inora joateko beste pertsona baten laguntza behar duen norbait– beren kargura duten pertsonak ere salbuestea zen helegite horren helburua).

b) *eta 14 zaldi fiskalen muga ez ezartzeari buruzko “gurpil-aulkiekin erabiltzeko egokituta” dauden ibilgailuak ere salbuesteko. 1971/1999 Errege Dekretuko III. eranskin gisa agertzen den baremoan A letrarekin mugitu ezintasuneko egoeran egon eta desgaitasuna duen pertsonen jabetzako ibilgailuak, hain zuzen.*

Foru Aldundiak Batzar Nagusiei izapidetze parlamentarioarako bidalitako Foru Arauaren proiektuan sartu zen aldaketa hori. Hauxe da aldaketa horren arrazoitzea, abenduaren 20ko 15/2010 Foru Arauaren arrazoi adierazpenean jaso zen moduan:

“... pertsona ezinduen kasuan, joan-etorrietarako gurgildun aulkia erabili behar dutenek zail dutenez ibilgailuotara gurgil eta guzti sartzeko beharrezkoak diren mekanismoak dituzten ibilgailuak eskuratzea, ibilgailuon kasuan zaldi fiskalen muga salbuespena egitea komeni da. Beraz, salbuespen hori aldatu egin behar da”.



ESPAÑA DIRECTO SAIOA GASTEIZEN

TVEko ESPAÑA DIRECTO saioa hartu-emanen jarri zen Eginaren eginez elkartarekin eta otsailaren amaieran gurekin izan zen Juan Terol kazetaria, kamera eta teknikari batekin.

Elkarteko bi bozeramailek, Silviak eta Iñakik, ibilbide bat egin zuten hiriko hainbat kaletan barna, saioko lantaldearekin. Turismo Bulegotik hasi, Loma jenerala kaleko lehen zenbakitik, eta Alde Zaharreko eta Zabalguneko hainbat lekutatik ibili ginen. Irisgarritasunaren eta Green guztia-
ren ustezko paradigma da hiria, baina ibilaldi horretan agerian geratu ziren hainbat eta hainbat gabezia: Silviak, nahiz eta laguntza teknikoa izan, ezin izan zuen aldapa mekanikoetara igo, eta, orobat, bilketa pneumatikorako

buzoietan, gainerako hondakinen edukiontzietan, Etxanobe eta Villasuso Jauregietan eta Posta bulegoan ere nabarmen geratu zen zer arazo dituzten ezgaitasunen bat duten pertsonak.

Hiriak ez du oraindik Irisgarritasun Planik, nahiz eta behin-behinean 2008an onartu. Non dago Gasteizko Irisgarritasun Plana? 2011. urtean onartuko al da behin betiko? Legea onetsi eta bi urtera Irisgarritasun Plana idazteko eta, ondoren, lau urtetik behin beste plan bat osatzeko obligazioa ezarri zuten Legeak. 1997an onartu zen legea eta, beraz, 2000. urterako onartuta behar zukeen lehen planak.

Iragan martxoaren 14an emititu zuten erreportajea.



ZEU PARTE

ABENDUAK 3, AHALMEN-URRITASUNA DUTEN PERTSONEN NAZIOARTEKO EGUNA

“Zeu parte. Gizarte-aldaketaren protagonista zarelako”. Goiburu horrekin ospatu zuen FEKOORek (Ahalmen-urritasun Fisikoa edo/eta Organikoa duten Bizkaiko pertsonen Federazio Koordinatzaileak) Ahalmen-urritasuna duten Pertsonen Nazioarteko Eguna. Urtero bezala, abenduaren 3an izan zen ospakizuna, eta errebindikazio-ekitaldi bat antolatu zen Bilboko Arenalean. Ekitaldi horretan lagundu zuten bai administrazioek, bai gizarte-garapenaren alde konprometitutako erakunde publiko eta pribatuek: Bizkaiko Foru Aldundiak, Bilboko eta Getxoko Udalek, ONCE Fundazioak, Metro Bilbaok, Eroski Fundazioak eta Bilbao Bizkaia Kutxak.

FEKOORekook azpimarratu nahi izan dugu kolektibo baten oinarrizko eskubideak urratzen direla. Kolektiboaren helburua da gainerako herri-tarrek erabiltzen dituzten espazioak partekatzeko eskubide berdinak eta aukera berdinak izatea. Egun hori errebindikatu beharrean gaude, oraindik ere gauza asko baitaude egiteko. Ahalmen-urritasunen bat duten hamar pertsonatik zortzi diskriminatuta eta gizartetik baztertuta sentitzen dira, edo hala sentitu dira noizbait.

Euskadik, gaur egun, Europako biztanleria zahartuenetako bat dauka. Urte gutxi barru, biztanleen %40 hirurogei urtetik gorakoa izango da. “Baliabideak diseinatzean, egungo premiei erantzun behar zaie eta etorkizunekoak aurreikusi behar dira. Helburua da gizartean egin dezakegun guztia pertsona guztien esku egotea, salbuespenik gabe; izan ere, ez daude

ahalmen-urritasuna duten pertsonak, baizik eta ahalmen-urritasuna eragiten duten inguruak eta jarrerak”, FEKOOReko lehendakari Iñaki Ansoleagak adierazi bezala, errebindikazio-ekitaldiari hasiera emateko hitzaldian.

Gizarte-bazterketaren atzean pertsonak daude: besteekin espazioak, emozioak eta esperientziak partekatu nahi dituzten pertsonak. Hainbat gauza egin nahi dituzte: zinemara joan; parrandan ibili; metroa, autobusa edo tranbia hartu; museoez edota kirol-instalazioez gozatu; haien ekipoa animatu edo kontzertu batera joan. Labur esanda, “bizitza partekatu nahi dugu beste pertsonekin. Eta espazio hori konkistatu beharrean gaude, oraindik ere eraitsi beharreko oztopo ugari baitago. Hormigoizko oztopoak, eta bazterketa eta aurreiritziak oinarritzat hartuta eraikitako oztopoak. Ziur asko, azken horiek eraitea zailagoa da, bestaldean gertatzen dena ikustea eragozten baitute”, adierazi zuen Solak, amaitzeko.



Ospakizun-ekitaldiak goizeko hamarretan hasi ziren "Zentzumenen ginkana" jarduerarekin. Jarduera ludiko eta pedagogiko horretan, Bilboko Santutxu auzoko Luis Briñas ikastetxeko bosgarren mailako 60 ikaslek hartu zuten parte. Zenbait eremutan banatutako ibilbidea da, eta haietako bakoitzean birsortzen dira ahalmen-urritasunen bat (fisikoa, ikusmenari edota entzumenari dagokiona...) duten pertsonak bizi dituzten egoerak; hartara, ikasleek enpatia-ariketa bat egiten dute. Gainera, "Anima eskola" antzerki-taldeak mugikortasun urriarekin eta irisgarritasunarekin zerikusia duten arazoak eszenaratu zituen Bilboko kaleetan.

12:15ean hasi zen ekitaldi instituzionala eta FEKOOR SARIAK 2010 banatzeko gala, Gurutze Beitia eta Gema Martinez aktoreek aurkeztua. Ohi duten bezala, umore- eta gizatasun-ukitua eman zioten ekitaldiari. Gure gonbidatuen artean ziren, besteak beste, Eusko Jaurlaritzako Gizarte Gaietako sailburuorde Fernando Fantova, Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintzako diputatu Juan Maria Aburto, Bilboko alkate Iñaki Azkuna, Getxoko alkate Imanol Landa, eta Hiri-gintza zinegotzi Joseba Arregi.

Bilboko zinegotzi hauek ere ekitaldian izan ziren: Jose Luis Sabas, Ibon Areso, Eduardo Maiz, Nekane Alonso, Julia Madrazo, Jon Sustatxa, Sabin Anuzita, Asier Abaunza, Cristina Ruiz, Txema Oleaga eta Yolanda Diez. Halaber, bertaratu ziren Iñigo Pombo (Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Saileko Pertsonen Autonomia Sustatzeko zuzendari nagusia), Adolfo Alustiza eta Iñaki Iribar (GUFeko laguntza-zerbitzuen alorreko gerentea eta zuzendaria, hurrenez hurren),



Begoña Ortuondo eta Jorge Morquecho (BBK Gizarte Ekintzako gizarte-erakundeekiko harremanetarako arduraduna eta zuzendaria, hurrenez hurren), Susana Palomino (Metro Bilbao), Basilio San Gabriel (ONCEko lurralde-ordezkarria), Aitor Gonzalez, Pablo Gonzalez (Gorabide), Mikel Barron (Futubide), Natxo Ruiz, Jose Angel Iribar (Athletic), Miguel Madariaga (Euskaltel Euskadi), Resu Casanueva (Down Syndromearen Fundazioa), Igor Barcia, Yurema Bastero eta Cristina Bacetes, Txema Franco (Lantegi Batuak), baita talde politiko guztien ordezkariak, enpresetako ordezkariak eta Bizkaiko gizarte-erakundeen ordezkariak ere.

FEKOOR Sariak 2010

Sari horiekien jendaurrean eskertu nahi dugu ahalmen-urritasuna duten pertsonen eskubideen alde, komunitate-partaidetzaren alde, eta herritartasun osoaren alde lan egin dutenen jardun bizia eta konpromisoa. Sarien hamargarren edizioa da, eta aurtengo berrikuntza izan da lau kategoriatan eman direla sariak.

Getxoko Udalak eskuratu du aurtengo Irisgarritasun-saria, irisgarritasun



unibertsalaren eta guztientzako diseinuaren kontzeptuen alde hartutako konpromisoagatik. Arkitektura-oztopoak eraitsi eta hiri-espazio inklusiboak eraiki ditu Getxoko Udalak; horrenbestez, hobera egin du mugikortasun urria duten pertsonen bizitzak, eta herritar guztien bizitzak, oro har. Getxoko alkate Imanol Landak jaso zuen saria, FEKOOREko zuzendari Juan Carlos Solak emanda.

Lan-inklusioari dagokion saria EULEN taldeak eskuratu du, Euskadin gauzatu duen giza baliabideen alorreko politikagatik; izan ere, politika horrek bideratu du ahalmen-urritasuna duten pertsonak lanerako hartzea. FEKOOREko presidente Iñaki Ansoleagak eman zion saria EULEN taldeko kontseilari ordezkari Jesus David Alvarez. Euskadin EULEN taldeak aise gainditzen du ahalmen-urritasuna duten langileen legezko kuota (%2); izan ere, gaur egungo langileen %9k ahalmen-urritasunen bat du.

Inklusioaren eta aukera-berdintasunaren alorreko Praktika onen saria ZELAI-ALAI HIPIKA ESKOLAK eskuratu du, ahalmen-urritasuna duten pertsonen bizi-kalitatea hobetzen duen zaldi-terapia teknika bat garatu baitute. ZELAI-ALAI HIPIKA ESKOLAKO zuzendari Elvira Uribesalgok jaso zuen saria, FEKOOREko Zuzendaritza Batzordeko Pilar Garciak emanda.

Amaitzeko, FEKOOREko Zuzendaritza Batzordeko Begoña Sanchezek eman zion Komunikazio-saria Telebilbaoko albistegiaren zuzendari Irene Diaz Abellani. Sari horren bidez FEKOOREk aintzatetsi nahi du elkartearen helburuarekin bat datozen kazetarien, programen, komunikabideen edota komunikazio-kanpainen konpromisoa kolektiboaren bizi-kalitatea hobetzeko, gure eskubideak defendatzeko eta gure irudia hobetzeko.

Ekitaldiaren ostean senidetasun-bazkari bat egin genuen, eta DJ batek alaitutako festa izan genuen arratsaldean.

FEKOOREKO BERDINTASUNAREN ALDEKO EMAKUME BATZORDEAK JARDUNALDI BAT ANTOLATU DU, AHALMEN-URRITASUNA DUTEN EMAKUMEAK GIZARTEAN DESABANTAILA HANDIAGOAN EGOTEA ERAGITEN DUTEN EGOERAK AZTERTZEKO

FEKOOREko Emakume Batzordeak jardunaldi bat egin zuen Bilboko Alhondigan azaroaren 26an. **“Ahalmen-urritasuna duten emakumearen inguru fisiko eta soziala”** jardunaldia azaroaren 25eko ekitaldien artean antolatu zuten, Genero-indarkeriaren aurkako Nazioarteko Eguna baitzen. Ahalmen-urritasun fisikoa edo psikikoa duten emakumeen eguneroko bizitza aztertu eta parte-hartzaileek egindako eskakizunak eta iradokizunak aintzat hartu ziren, herri-partaidetza, auto-

nomia eta bizi-kalitatea sustatzea helburu hartuta.

Ekimena sortu zen FEKOOREko Berdintasunaren aldeko Emakume Batzordeak 2009az geroztik antolatzen dituen “Elkarguneak” topaketen ondorioz. Topaketa horietan ahalmen-urritasuna duten emakumeek esperientziak partekatzen dituzte, eremu guztietan herritar izateko aurkitzen dituzten eragozpenen diagnosis egitea helburu hartuta; gizarte-eraldaketarako praktika onak bideratzeko estrategiak proposatzen



dituzte, erabateko aukera-berdintasuna eta gutxitasuna duten emakumeek bizitza politiko, ekonomiko, kultural eta sozialean benetan parte hartzea bermatzeko.

Jardunaldi horretan, formatu berri batean egin ziren 2010eko Elkargunek, hainbat eremu aintzat hartuta: hirigintza, ingurumena eta garraioa, gizarte-ekintza, gizarte-zerbitzuak eta -prestazioak, kultura, kirola, aisia eta denbora librea.

Eztabaidari ekiteko, hiru foro antolatu zituzten aldi berean, eta 60 pertsona inguruk parte hartu zuten, ahalmen-urritasuna duten emakumeak eta zenbait alorretako espezialistak kontuan hartuta. Mahai bakoitzean ahalmen-urritasuna duten Bizkaiko 15 emakume inguruk hartu zuten parte (%45etik gorako ahalmen-urritasuna dutenak), eta haiekin batera aritu ziren dinamizatzaile bat, Batzordeko bi emakume, eta alor bakoitzeko bizpahiru profesional, ezaupide teknikoak jarri zituztenak eztabaida aberasteko.

Talde parte-hartzaileak honako galdera hauei erantzuten ahalegindu ziren:

Ba al dago egiten ez duzun gauzarik garraio, kale, eraikin eta komun irisgarri nahikoa ez dagoelako? Batzuetan, arriskuan zaudela sentitzen al duzu? Etxez etxeko laguntza-zerbitzua ez al da nahikoa eta zure bizitza-estiloa baldintzatzen al du? Aulki motorduna behar al duzu, baina ezin al duzu ordaindu? Joango al zinateke antzokietara, ikuskizunetara, zinema, pubetara edota diskoteketara, irisgarriak izanez gero? Noiz ikusi duzu azkeneko aldiz ahalmen-urritasuna duen emakumeren bat telebistan, zinemari, aldizkarian edo egunkarian?

Topaketa horietan guztietan ateratako ondorioek eta ondorengo garapenek bideratu dute FEKOOREko Berdintasunaren aldeko Emakume Batzordeak gizarte-eraldaketarako praktika onak gauzatzeko estrategiak proposatzea, erabateko aukera-berdintasuna eta ahalmen-urritasuna duten emakumeek bizitza politiko, ekonomiko, kultural eta sozialean benetan parte hartzea bermatzeko; eta EAEko genero- eta aukera-berdintasunerako plan guztien helburuetan aintzat hartzea.

laz, gai hauei buruzko tailerrak egin ziren: prestakuntza eta hezkuntza, lana, sexualitatea eta bikote-harremanak, eta genero-indarkeria.

Mintegietan jasotako hausnarketa, informazio eta proposamen guztiak urtean egindako Elkarguneetan bildutakoarekin batera jasoko dira eta "Aholkuen gidaliburua" prestatuko eta argitaratuko da, edozein alorretan berdintasun-plan bat diseinatu nahi duten profesionalak edo eragileak helburu hartuta. Gidaliburu horretan agertuko dira berdintasun-politiken helburuetan eta ekintzetan ahalmen-urritasuna duten emakumeak aintzat hartzeko orientabideak, helburuak eta ekintzak, legeek agindutakoa eta nazioarteko hitzarmenetan adostutakoa betetzea helburu hartuta, bai gutxitasuna duten pertsonen eskubideei buruzkoa, bai emakumeen aurkako diskriminazio oro desagerrarazteari buruzkoa.

ARBOLARTEK KUDEAKETA KALITATEAREN ZILARREZKO Q-A LORTU DU

Bizkaiko Foru Aldundiaren Arbolarte zentroak, ahalmen-urritasun fisikoak duten pertsonen integrazioa eta gaitzea helburu duenak, EUSKALIT Bikaintasunerako Euskal Fundazioaren aintzatespena lortu du, kudeaketa-praktikaren maila aurreratuagatik. Zentroa 2003an ireki zenetik, FEKOO-Rek kudeatu du Arbolarte. EUSKALITek azaroan egindako kanpo-ebaluazioan 400 puntutik gora lortu ditu zentroak, Kudeaketaren Bikaintasunerako Europako ereduaren arabera (EFQM).

FEKOOren zuzendari Juan Carlos Solak "Zilarrezko Q" ziurtagiria jaso zuen, Eusko Jaurlaritzako Gizarte Gaietako sailburuorde Fernando Fantovak emanda, EUSKALITek Barakaldoko BECen abenduaren 16an antolatutako ekitaldian. Zilarrezko Q-a kanpoko aintzatespena da, erakunde baten kudeaketaren kanpo-ebaluazio prozesu zorrotz baten ondoren lortua. Aditu independenteek egiten dute ebaluazio hori, eta erakundearen kudeaketaren bikaintasun-mailaren adierazle objektiboa da.

Horregatik, sari horrek sendotzen du FEKOOren misioa zerbitzu-sarearen kudeaketan. Misio hori da, hain zuzen ere, gizarte-eraldaketaren aldeko konpromisoa hartzea, gutxitasun fisikoak edo/eta organikoak duten pertsonen komunitatean bizitzeko aukera izan dezaten, modu independentean, eskubide guztiekin eta berdintasunean.

Horrenbestez, sektoreko erreferente bihurtu da Arbolarte, arreta emateko eredu aurreratuak eta oso profesional adituak eta konprometitua dituelako. Izan ere, estreinakoz lortu du horrelako zentro batek kudeaketa bikaintasunaren Zilarrezko Q-a. "Lorjpen horrek adierazten du kudeaketa bikaina duen zentroa dela, eta orain dela zazpi urte hasitako



etengabe hobetzeko lana sendotzen du" azaldu du Leire Martinezek, zentroaren arduradunak.

Egunez arreta ematen duen Bizkaiko Foru Aldundiaren zerbitzua da Arbolarte. Berariazko gizarte-zerbitzuen sarean dago eta ahalmen-urritasun fisikoak duten pertsonak ditu helburu. 52 erabiltzaileri arreta emateko gaitasuna du; haietatik 20ri egun osoko zerbitzua ematen die, eta 32ri egun-erdikoa.

Zentroan hainbat zerbitzu ematen dira: lanbide-terapia, fisioterapia, teknologia berriak, eguneroko bizitzako jardueretarako entrenamendua, logopedia, laguntza teknikoetako aholkularitza, aisialdi inklusiboa, kirol egokitua, aholkularitza psikologikoa, garraio egokitua, jantoki-zerbitzua, eta abar luze bat.

Arbolartera joaten diren pertsona guztiek ezaugarri komun bat dute: mugikortasun urria. Erabiltzaileen %98k nolabaiteko laguntza teknikoa edota mugikortasunari laguntzeko zerbait erabiltzen du (aulki gurgildun elektrikoa edo eskuzkoa, makuluak, bastoia).

Helburua da esku-hartzeko bana-banako programen bidez (bana-banako

curriculum) ahalmen-urritasun fisiko duten pertsonak gaitzea, gizartean txertatzea eta haien parte-hartze aktiboa bideratzea. Bana-banako curriculum da gure erakundearen egiten dugun lanaren muina. Kontua da bateratzea erabiltzaileen helburuak eta nahiak, zentroak eskaintzen dituen produktuak eta zerbitzuak, eta profesionalen gaitasunak. "Gure arrakasta erabiltzaileek gaitzean datza. Izan ere, zerbitzuaren azken helburua da erabateko garapen pertsonala eta gizarte-garapena lortzea, komunitateko bizimodu independentea eta autonomia sustatzea eta, horrenbestez, bizi-kalitatea hobetzea", azpimarratu du Leirek.

Erabiltzaileen curriculum-helburuen ondorioa da gaitasun handiagoko pertsonak izatea, gizartean txertatzeko aukeratutako eremuetan ibilbide arrakastatsu bati ekiteko prestakuntza handiagoa dutenak. *"Erabiltzaileek protagonismo handiagoa lortzen dute haien familia-inguruetan, haien aisia eta denbora librean egoki gozatzeko, prestakuntza-ibilbideei ekiten diete inguru arruntean (lehen mailako ikasketen ziurtagiria lortzea, lanbide-heziketako ibilbideetan sartzeko, 25 urtetik gorakoak unibertsitatean sartzeko...) eta etorkizunean lanean hasteko helburua izatea, baita independizatzea ere"* adierazi du Arbolarteko arduradunak, amaitzeko.

ETXEBIZITZAK IRISGARRIAGOAK IZATEARREN FEKOOREK EGINDAKO ERREKLAMAZIOAK DIPUTATUEN KONGRESURA IRITSI DIRA

Kongresuaren Osoko Bilkurak aho batez onetsi du EAJren talde parlamentarioak FEKOOREn eskariz aurkeztutako mozioa. Mozio horretan Gobernuari eskatzen zaio Kode Zibila eta Jabetza Horizontalari buruzko Legea aldatzeko proposamena aurkez dezala sei hilabeteko epean, etxebizitzak eta bizilagun-komunitateek partekatzen dituzten espazioak irisgarriak izan daitezzen.

Mozio horretan Gobernuari eskatzen zaio sei hilabeteko epea agortu baino lehen Kode Zibila berritzeko proiektua Parlamentura bidaltzeko, arkitektura-oztopoak desagertzeko bideratzeko beharrezkoak diren aldaketa guztiak eginda. Halaber, epe berean, Jabetza Horizontalari buruzko Legea aldatzeko proiektu bat egiteko eskatzen du mozioak. Helburua da irisgarritasuna bermatzeko obrak egin ahal izateko



jabe gehienaren onespeneraren beharra kentzea, eta edozein jaberik arkitektura-oztopoak gainditzeko elementu mekanikoak komunitatean erabiltzea eragozten dioten komunitate-arauak baliogabetzea.

Erreforma horrek mesede egin diezaike 300.000 komunitateri, hau da, 24 milioi pertsonari, batez ere gutxitasunen bategatik mugikortasun urria

izan eta igogailurik gabeko eraikinetan bizi direnei.

Azken finean, helburua da mugikortasun urria dutenek (gutxitasunen bat duten pertsonak, pertsona adinduak, haur-kotxeak erabiltzen dituzten gurasoak eta abar) norberaren etxera sartzeko gai izatea, autonomia osoz. Igogailuak edo arrapalak jartzeko, bizilagun-komunitateek duten arazo nagusia da ezin dituztela jarri elementu komunetan (esate baterako, eskailera-zuloetan edo patioetan).

“Urgentziatzko erantzuna behar duen arazoa da, etxebizitzaren %70ak ez baitu igogailurik, eta igogailua dutenen %80k eskailera-mailak baititu igogailua hartzeko lekura iristeko” adierazi du FEKOOREko zuzendari Juan Carlos Solak.

Zehazki, ekimenaren helburua da Kode Zibilaren 569., 585. eta 1936. artikulua aldatzea, zorretan eragin

dutelako eta arkitektura-oztopoak kentzeko prozesua zailagoa izatea eragin dezaketelako. Beste helburu bat da Jabetza Horizontalari buruzko Legea aldatzea; izan ere, gaur egun arkitektura-oztopoak kentzeko obrak egitea eragozten du, komunitateak egin beharreko gehieneko gastua mugatzen baitu hiru hilabeteko ohiko gastuen zenbaterako. Hala ere, mozioak eskatzen du bizilagun-komunitateetan berritzeak egiteko gehiengoaren onespeneraren beharra aldatzea.

“Ezinbesteko urratsa da, irisgarritasuna bideratzeko hainbat obra gauzatzeko ezinbestekoa baita zenbait ondasun pribatu erasatea (eskailera-azpiak, lokalen eta garajeen sabaiak, merkataritza-lokalak...). Are eta gehiago, 2019rako Espainiako komunitate guztiak irisgarriak izan beharko dutela kontuan hartuta” adierazi du Solak, amaitzeko.

FEKOOREK HELEGITE BERRIA AURKEZTU DU, BARAKALDOKO LA INMACULADA AUZOKO ESKAILERA MEKANIKOAK ALDATZEKO ESKATUZ

Ahalmen-urritasun Fisikoa duten pertsonen Bizkaiko Federazio Koordinatzaileak helegite bat aurkeztu du epaitegian. Izan ere, Barakaldoko Udalak eskailera mekanikoak jarri ditu Gurutzetako La Inmaculada auzoan, eta mugikortasun urriko pertsonak ezin dituzte inolaz ere erabili eskailera horiek. Horrenbestez, helegitearen helburua da epai-bidean aurrera egitea, Barakaldoko Udalak neurri teknikoak abian jar dituzan, herritar guztiak La Inmaculada auzoko goialdera igotzeko aukera izan dezaten, bazterketarik gabe.

Orain dela gutxi, Bilboko Administrazioarekiko Auzien 3. zenbakiko Epaitegiak ez du aintzat hartu erakun-

deak duela urtebete aurkeztutako helegitea –proiektuak Irisgarritasuna Sustatzeko Legea ez zuela betetzen argudiatzen zuena– helegite horrek “forma-akats” bat duelako. Epaian ez da inoiz aipatzen auziaren azpian dagoen gaia, eta ez dira zalantzan jartzen Federazioak azaldutako lege-argudioak (EAEko Irisgarritasuna Sustatzeko Legearen muinarekin bat ez datorren proiektua dela, alegia). Udalak eskailera mekanikoak egiteko proiektua onesteko garaian bestelako neurri tekniko inklusiboak kontuan hartzeagatik jarritako helegitearen forma-akatsa da “proiektuaren” aurka egiten dela, “administrazio-ekintza-aren, tokiko gobernu-batzordearen

erabakiaren, alkatetza-dekretuaren edota osoko bilkuraren erabakiaren” aurka egin beharrean, Epaitegiaren erabaki-agirian adierazitakoaren arabera. Ildo horretan, FEKOORek eskatu dio Udalari hirigintza-operazio horren onespena jasotzen duen agiria. Epaia horrekin, epaitegiak adierazi du etorkizuneko auziak baliozkoak izateko nolako forma juridikoa izan behar duten. Horrenbestez, herritar guztiek erabiltzea, eta batez ere, mugikortasun urria duten pertsonak (aulki gurgildunak edota makuluak erabiltzen dituzten pertsonak, pertsona adinduek, haur-kotxeak erabiltzen dituzten gurasoek eta abarrek) erabiltzea bermatzen duten baliabide teknikoak jartzea aintzat hartzen ez duten ekinbide publikoko eta pribatuko exekuzio-proiektuei aurre egiteko bidea dugu gure aurrean. Lehenengo helegitea jarri zen FEKOOReko kide eta auzoko bizilagun Sendoa Quijadak salatu zuenean bere eskubideak urratzen zirela, auzora ezin baitzen iritsi gainerako herritarrek bezala.



FEKOORetik, gure teknikari-taldearen esperientzia eta lankidetzaren eskaintza diegu Bizkaiko udal guztiei, indarrean dagoen legedia errespetatuz udalerriri horien irisgarritasun-arazoak konpontzeko apustua egin dezaten. Udaleko teknikariei aholku emango diegu, kasu bakoitzean egokien izan daitekeen jardunbideari ekiteko. Halaber, laguntza tekniko egokienak aukeratzen lagunduko diegu, herritar guztientzat erabilgarriak diren sarbideak bermatzeko, eskubide berdinekin eta aukera berdinekin. FEKOORek laguntza emango die ahalmen-urratasun fisikoa edo/eta organikoa duten pertsonen eskubideak errespetatzen dituzten eta haien bizikaltatea hobetzea helburu duten legezko ekimen eta jarduerak guztiei. Jarrera horren adierazle argia da erakundeak elkarlanean diharduela EAEko talde politiko guztiekin eta administrazio-antolaketako eremu guztiekin: Eusko Jaurlaritzarekin, Bizkaiko Foru Aldundiarekin eta udalekin. Pertsonen oinarriko eskubideek (eta, eskubide horien artean, guztientzako irisgarritasunak) ez baitute siglarik, eta ez baitira alderdi politiko jakin baten ondare. Unibertsalak dira, eta ezin zaizkio inori ukatu.



Helegite horrek azpimarratu nahi du ez dela konponbide tekniko egokia eskailera mekanikoak jartzea arkitektura-oztopoak kentzearen eta herrietako eta hirietako goialdeko auzoetara errazago iristearren.

ESKI ALPETAR EGOKITUKO

VII. IKASTAROAK

FEKOORek “Eski alpetar egokituko VII. ikastaroak” antolatu ditu Cerlerren. Programa horri esker, ahalmen-urritasuna duten 200 pertsonatik gora dira modu autonomoan eskiatzen ikasi dutenak eta kirol horrekin gozatzeko aukera izan dutenak.

Ahalmen-urritasun fisikoa duten 24 pertsonak bost eguneko ikastaroa egiteko aukera izango dute eski alpetarra ikasten hasteko edota haien teknika hobetzeko, FEKOORek urtero antolatzen dituen ikastaroari esker.

FEKOORek, erakundearen Kirol Elkartearen bidez, zazpigarren urtez jarraian antolatu ditu “Eski egokitua aulkian egiteko ikastaroak”. Cerlerreko eski-estazioan egingo dira ikastaroak, Aragoiko Pirinioetan. Guztira 24 pertsona arituko dira, hiru taldeetan banatuta, eski alpetarra ikasten edota teknika hobetzen bost egunetz, urtarrietik apirilera bitartean. Aulkia elurretan erabiltzeko oinarritzko teknikak eta pistetako igogailu meka-

nikoak hartzeko moduak ikasten dira ikastaroetan.

Zortzi pertsonak osatutako lehen taldeak (ikastaro aurreratua) urtarrilean gozatu du kirol zuriaz. Bigarren taldea, oinarritzko mailako eta maila ertaineko eskiatzaileek osatua, otsailaren 6tik 11ra bitartean arituko da Cerlerren eskiatzen, eta hirugarren taldea, berriz, martxoaren 27tik apirilaren 1era.

Ikastaroan sartzen da Bilbotik Cerlerrera joatea eta etortzea furgoneta egokituetan, hiru izarreko hotela (mantenu erdia) eta bost egunetako forfaitak parte-hartzailearentzat eta haren laguntzailearentzat, eski egokituko bost eguneko ikastaroa, berriazko materiala (aulkia, estabiloak, eskiak, kaskoa) eta baita istripu-asegurua eta jolas-lizentzia ere.

Handix da Penintsulako iparraldean eski egokitua eta ahalmen-urritasuna duten pertsonentzat mendi-gidariak dituen enpresa bakarra, eta Cerlerren



dago. Orain dela zazpi urte abian jarri zenetik, 200 pertsonatik gora dira programa horri esker modu autonomoan eskiatzen ikasi dutenak. Ikastaroen finantziazioaren zati bat CANeko bezeroek hartu dute beren gain, FEKOORen kirol-proiektu inklusibo hori balioetsi baitute.

Programaren helburua da ahalmen-urritasunen bat duten pertsonen autonomia sustatzea. Horrenbestez, eskiatzen ikasteko behar diren baliabide guztiak jartzen dira eta etorkizunean ere aukera hori izan dezatela bultzatzen da.

Hainbat onura dakartzan jarduera da, askatasuna, mugikortasuna eta autonomia sentiarazten duelako; eta, batez ere, ahalmen-urritasuna duten pertsonak sarritan urruti duten espazio natural bat haien eskura jartzen delako. Material egokiek, elurretan praktikatzen diren modalitate gehienak irigarriak dira ahalmen-urritasunen bat duten pertsonentzat, aukera baitute igogailu mekaniko guztiak erabiltzeko eta pista guztietan sartzeko. Aulki egokitua da kirol horretarako elementu funtsezkoena, harekin edozein eski-estaziotako

edozein teleaulki edo igogailu irisgarria baita.

FEKOOR Kirol Elkartek programatutako ikastaroetara familiakoekin edo lagunekin joaten dira parte-hartzaileak. Izan ere, kirol horrek inklusioa sustatzen du eta hainbat balio bultzatzen ditu, esate baterako, hobetzeko nahia eta autoestimua garapena; gainera, askatasun-sentipen handia eragiten du.

Zenbait aulki mota daude eski egokitua praktikatzeko, ahalmen-urritasunen tipologiaren arabera diseinatuak. "Helburua da pertsona bakoitzak bereganatzea eski egokituaren ezaupide teknikoak, etorkizunean bere kabuz eskia dezan, ahalik eta modu autonomoenean" azaldu du FEKOOR Kirol Elkartearen arduradun Javier Cuevak.

Stabilo pare bat (makuluaren antzekoak, muturrean eski txiki batzuekin) eta ohiko eski pare bat dira aulkia erabiltzen duen eskiatzaile baten oinarrizko ekipoa. Segurtasuna ere garrantzi handikoa da, eta esperientzia dutenentzat erorketek arriskurik ez badute ere, ikastaro horietan guztietan kaskoa erabili behar da.



GIPUZKOAKO GIZARTE-ZERBITZUEN SISTEMA BERRIA

Urteko azken hiruhilekoan Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politikako diputatuak, Maite Etxanizek, hainbat forotan aurkeztu du –besteak beste, Gipuzkoako gizarte erakundeetarako Gipuzkoako gizarte-zerbitzuetarako etorkizuneko eredu; hain zuzen, datozen hilabeteetan ezartzea eta martxan jartzea aurreikusten diren zerbitzuak.

Eredu berri hori Gizarte Politikako sailean egindako gogoetaren ondorioz sortu da; gogoeta, besteak beste, beste gizarte-eragile batzuei, erakunde-sareei eta gizarte-zerbitzuak ematen dituzten erakundeetara zuzenduta dago; gizarte-zerbitzuen legearen garapen arauemailea da gogoetaren oinarria.



Gizarte-zerbitzuen sistema berriaren proposamena honako balio hauetan oinarritzen da:

Duintasuna: sorospena, babesa, gizarte-elkartasuna, laguntza jasotzeko eskubidea da, pertsona ororen eskubidea; autonomia eta erantzukizuna sustatzea eta gizarteratzea errazten du.

Unibertsaltasuna: gizarte-zerbitzuak guztion eskubide dira.

Elkartasuna: baliabideetarako sarre-
ra guztioi bermatzeko aukera, norberaren beharren arabera.

Beraz, gizarte-zerbitzuen eredu berriak bost alderdi zehatz izango ditu, zabalkundearen azaltzen den moduan:

1. Erkidego-ikuspegia-pertsona ardatz

Pertsonak euren familia- eta gizarte-ingurunean geratzeko aukera handiagoa izan dezaten; bereziki nabarmentzen dira gizarte- eta osasun-esparruak, batez ere toki-mailan, pertsonen arreta osoa eskaintzeko eta pertsonak ingurunean mantentzeko. Ikuspegi hau pertsonen zein pertsonen beharretara zuzenduta dago.

2. Administrazioaren eginkizuna

Gizarte-zerbitzuak hirugarren sektorearekin eta enpresa-sarearekin hitzartuta eskainiko dira, sare publikoaren zati baitira eta, kalitate-irizpideei jarraituz, sare publikoa gizarte-zerbitzuen euskal sistema baita; pertsonen, familien zein langileen asebetetze- eta parte-hartzeko mailak neurtuko dira.

3. Antolakuntza

Etengabeko prestakuntza-plana ezarriko da, hitzartutako erakundeetako profesionalentzat. Gizarte-zerbitzuak hobetzeko berrikuntza bultzatuko da, beste jarduerak biltzeko gainera.

4. Finantzaketa

Nahitaezkoa da gizarte-zerbitzuen iraunkortasuna bermatuko duen finantzaketa izatea.

5. Erantzukizuna

Erantzukizuna da herritarren, gizarte-erakundearen eta administrazio publikoaren artean dagoen konfiantzazko harremana. Boluntarioen gizarte-ekimena ere aitorzen da; antolatuta dagoen gizarte zibilaren balioa, azken finean.

Laburbilduz, erkidego-ikuspegia da eredu horren ezaugarri nagusia: pertsonak eta pertsonen beharrak ditu oinarri, eta kalitatezko gizarte-



zerbitzuak eskaintzen dituen erakunde-sarea du.

«TEKNOLOGIA BERRIAK, AHALMEN-URRITASUNAK DITUZTEN EMAKUMEEN ENPLEGAGARRITASUNA HOBETZEKO BIDEAK»

Horixe izan zen igaro den abenduaren 15ean Donostian ELKARTUK eta COAMIFICOAK antolatutako jardunaldien izenburua. Laura Searak, Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendariak; Pilar Ramirok, COAMIFICOAKo presidentek; eta Rakel Barrosok, ELKARTUKo zuzendariak eman zieten hasiera jardunaldiei.

Alde batetik, gizartea eta botere publikoak sensibilizatu nahi zituzten urritasuna duten emakumeek informazioaren eta komunikazioaren teknologien (IKTen) eremuan pairatzen dituzten desberdintasunen inguruan; beste alde batetik, urritasuna duten emakumeei modu praktikoan jakinarazi nahi zizkieten teknologiei esker sortzen diren lan-aukerak.





Bi helburuak bete zituzten nahiz eta, horrelakoetan gertatu ohi denez, zehaztapenen gakoa falta izan; bestalde, zehaztapenarena gai korapilatsuegia da jardunaldien foroan azaltzeko.

Egoera kezkarriaren berri eman zuten, urritasuna duen emakumearen egoeraren berri, hain zuzen ere: urritasuna duen gizonarekiko ere desberdintasun nabaria pairatzen du emakumeak; eta emakumea biztanleria osoarekin alderatuz gero, desberdintasuna ukazina da.

Desberdintasun-egoera horri lotuta, kontuan hartu behar da azken urteotan informazioaren eta komunikazioaren teknologiek izan duten hazkunde eta aurrerapen handia. Hazkunde azkar horrek aldaketa nabarmenak eragin ditu lan egiteko, komunikatzeko eta harremanak izateko moduan ere.

Biztanle guztiak ez dira teknologiaren aldatetara modu berean egokitu; beraz, gaur egun aurrerapen horietatik baztertuta bizi den pertsona ugari dago, eta horrek zulo digitala eragin du.

Zulo digitala pairatzen dutenetako batzuk dira urritasuna duen emakumeak.

Horren harira, hizlarietako batek, Augustias Bertomeu andreak, kopuruak eman zituen, baita zulo digitala eragiten duten alderdiak izendatu ere: urritasuna duen emakumeak urritasuna duen biztanle guztien %58 dira; 65 urtetik gorako biztanleez ari garenean, ordea, ehunekoa handitu egiten da. Hezkuntza-mailari erreparatuz gero, urritasuna duen emakumeen %74,79k oinarrizko ikasketak ditu, edo batere ikasketarik ez; urritasuna duen emakumeen artean jardueratasak ere behera egiten du hein handi batean (%21,7), eta emakume guztien jarduerata-tasa (%44) baino txikiagoa da.

Egoera horri, nahitaez, urritasuna duen emakumeek bazterketa bikoitza pairatzen dutela gehitu behar zaio; hau da, emakumeek pairatzen dituzten desberdintasun guztiak gehi urritasunak berak eragindakoak; esaterako:

- Langabezia-tasa handiagoak, gaur egungo krisi-egoerak areagotuak.
- Zerbitzu egokiak izateko aukera txikiagoa, urritasuna duen gizonekin alderatuta.
- Baliabide ekonomiko eskasagoak, lanaren ezegonkortasunak eraginda.
- Hezkuntza-tasa txikiagoa (zenbat eta ikasketa-maila handiagoa, orduan eta hezkuntza-tasa txikiagoa).
- Bakartze handiagoa gizartean.

Horrek guztiak zailtasunak sortzen ditu erabakiak hartzerakoan, eta askatasuna mugatzen dute bizi-proiektuetako funtsezko alderdiak antolatzerakoan.





Rakel Barroso ELKARTUko zuzendaria adierazten duen moduan, «teknologiaren bidez lan egitea da lan egiteko modu bakarra»; eta gaineratzen du:

«prestakuntza onak etxetik edo beste edozein lekutatik lan egiteko aukera emango die urritasuna duten emakumeei, edozein emakumeren maila berean». Enpresek prestakuntza-maila handia eskatzen dute, beraz, «teknologia berriak %100ean erabiltzen jakitea da prestatzeko eta benetako aukera-berdintasuna izateko modu bakarra».

Amaitzeko, honako hau da ondorioa: urritasuna duten emakumeek pairatzen duten egoera, oroz gain, kezkarria da; beraz, ezinbestekoa da gizarteratze-politika eraginkorrei ekitea modu praktikoan eta premiazkoan, maila guztietan, urritasuna duten emakumeen eskubideak babestearren.

ALDAKETAK TRAKZIO MEKANIKOKO IBILGAILUEN GAINEKO ZERGAN

Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergen 2010ean onetsitako aldaketei buruzko desadostasuna jakinarazi genien erakunde arduradunei (Urritasun Batzordeari, Gizarte Kontseiluari, Batzar Nagusiei eta Arartekoari).

Urteko azken egunetan, trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko 2011rako zerga argitaratu zen Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean; hainbat aldaketa zituen arren, guretzat ez zegoen funtsezko aldaketarik, ondoko arau honetan ikus daitekeen moduan.

3/2010 FORU ARAUA, abenduaren 20koa, trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergari buruzko uztailaren 5eko 14/1989 Foru Araua aldatzen duena.

GIPUZKOAKO DIPUTATU NAGUSIAK

Jakinarazten dut Gipuzkoako Batzar Nagusiek onartu dutela «Trakzio Mekanikoko ibilgailuen gaineko zergari buruzko uztailaren 5eko 14/1989 Foru Araua aldatzen duen abenduaren 20ko 3/2010 Foru Araua», eta nik aldarrikatu eta argitara dadin agintzen dut, aplikagarria zaien herritar guztiek, partikularrek nahiz agintariek bete eta betearaz dezaten.

Donostia, 2010eko abenduaren 20a -
Diputatu nagusia, Markel Olano.

HITZAURREA

Abenduaren 23ko 4/2009 Foru Arauak hainbat aldaketa sartu zituen Gipuzkoako zergen ordenamenduan; horien artean, Trakzio Mekanikoko



Ibilgailuen gaineko Zergari dagozkionak. Zehazki esanda, zerga horretan araututa dauden salbuespenekin lotuta, foru-arauak idazkera berria eman zion Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zergari buruzko uztailaren 5eko 14/1989 Foru Arauaren 2. artikuluari, helburu bikoitza harturik: alde batetik, ahalmen urriko pertsonen kasuan ponderatuta egotea turismo-ibilgailuak zergatik salbuetsita uztea, betiere salbuespen hori ahalmen-urritasun handiko kasuetan edo mugikortasun-arazoak daudenean bakarrik aplikatzen diren; eta bestetik, progresibitatearen printzipioa ageriago izatea zergaren aplikazioan diru-ahalmen handiagoa duten zergadunek potentzia handiko ibilgailuetarako aurreikusita dagoen salbuespenerako eskubiderik izan ez dezaten.

Mugikortasun-arazoak izateagatik beren joan-etorrietarako gurpil-aulkiak behar dituzten ahalmen urriko pertsonen kasuan zail izaten dute gurpil-aulkien erabilera onartzen duten ibilgailuak erosi ahal izatea, eta horren ondorioz, zilegi eta bidezko jo da ibilgailu horiei ez aplikatzea zaldi fiskalei dagokionez

ezarrita dagoen muga. Hala iritzi dio Gipuzkoako Eudeleko Kontseiluak, eta hala berretsi du Gipuzkoako Finantzen Kontseiluak.

Hortaz, zilegi da salbuespen horren aplikazioan ezarrita dauden mugak goian adierazitako eran aldatzea.

1. artikulua

2. artikulua 1. ataleko e) letra aldatu da Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zergari buruzko uztailaren 5eko 14/1989 Foru Arauan, eta honela geratu da idatzita:

«e) Mugikortasun murriztua duten pertsonentzako ibilgailuak, abenduaren 23ko 2822/1998 Errege Dekretuak, Ibilgailuen Erregulamendu Orokorra onartzen duenak, II. eranskinaren A letran aipatuak, ahalmen urritasuneko pertsonen izenean matrikulatuta daudenean.

Era berean, salbuetsita daude 14 zaldi fiskaletik beherako ibilgailuak, baldin eta ahalmen urrikoen izenean matrikulatuta egonik, berek ez beste inork erabiltzeko badira. Salbuespen hau zirkunstantzia ho-



riek betetzen diren artean aplikatuko da, ahalmen urriko pertsonen gidatutako ibilgailuak izan nahiz horiek garraiatzeko ibilgailuak izan.

Aurreko bi paragrafoetan aipatutako salbuespenak ibilgailu bategatik bakarrik aplikatu dakizkieke horien onuradun diren subjektu pasiboiei.

Letra honetan xedatutakoaren ondorioetarako, honako hauek hartuko dira ahalmen urriko pertsonatzat:

- a) Elbarritasun-maila 100eko 33koa edo handiagoa eta 100eko 65ekoa baino txikiagoa duten pertsonak, mugikortasun murriztuko egoeran badaude. Mugikortasun murriztua dutela ulertuko da abenduaren 23ko 1971/1999 Errege Dekretuak, elbarritasun-maila aitortu, ezarri eta kalifikatzeko prozedurari buruzkoak, 3. eranskinean jasotzen duen baremoaren A, B edo C letretako egoeretan sartuta daudenean edo baremo horren D, E, F, G edo H letretan 7 puntu edo gehiago eman zaizkienean.
- b) Elbarritasun-maila 100eko 65ekoa edo handiagoa duten pertsonak. Aurreko a) eta b) letretan aipatutako pertsonak mugikortasun murriztuko A egoeran badaude 1971/1999 Errege Dekretuak 3. eranskinean jasotzen duen baremoaren arabera, ez zaie aplikatuko 14 zaldi fiskaleko muga, baldin eta ibilgailua gurpil-aulkia eramateko egokituta badago».



2. artikulua

Uztailaren 5eko 14/1989 Foru Arauaren 2. artikuluko 1. puntuko e) letrari beste paragrafo bat erantsi zaio bukaeran, eta honela geratu da idatzia:

«Salbuesita daude, baita ere, guraso-ahal, tutoretza edo kuratoretza dela-eta, ardurapean elbarritasun-maila 100eko 65ekoa edo handiagoa duen pertsona bat duten pertsonen jabetzako ibilgailuak. Ibilgailu bat baino gehiago badute jabetzan, ibilgailu bakarrak izango du salbuespena».



3. artikulua

Uztailaren 5eko 14/1989 Foru Arauaren 2. artikuluko 2. puntuari beste paragrafo bat erantsi zaio bukaeran, eta honela geratu da idatzia:

«e)atalaren arabera elbarritasuna duen pertsonaren bat ardurapean duten pertsonen udalaren aurrean egiaztatu behar dute elbarritasun-maila eta elbarritasuna duen pertsonarekin duten harremana».

AMAIERAKO XEDAPENA

Foru-arau hau 2011ko urtarrilaren 1etik aurrera sartuko da indarrean.